

# zabaldu

ehbildu

2022ko abendua



ehbilduzornotza.eus

## Ander Uriarte izango da EH Bilduren alkategaia Zornotzan

Ander Uriarte Pujana izango da EH Bilduren alkategaia Amorebieta-Etxanon 2023ko Udal Hauteskundeetan, koalizio soberanistaren oinarri sozialak bere hautagaitza berretsi ostean.

# Ander Uriarte: “Amorebieta-Etxano hobea eraikitzeko proiektu eta neurri zehatzak ditugu, eta horiek martxan jartzea da EH Bilduren helburua”

**Berrito izango zara Zornotzako EH Bilduren alkategaia. Zelan helduko diozu ardura horri?**

Egia da ondo baloratu beharreko erabakia izan dela, baina ohore handia izan zen duela lau urte herriaren babes hori izan nuela ikustea. Hori izan da, batez ere, erronka onartzeko arrazoi nagusia. Orduko errespetu eta ilusio berdinak mantentzen ditut, baina **eskarmentuan asko irabazi** dugula uste dut. Oso harro nago egin dugun lanarekin, baina, esango nuke oraindik gauza asko ditugula egiteko. Amorebieta-Etxano hobea eraikitzeko **proiektu eta neurri zehatzak** ditugu, eta horiek martxan jartzea da gure helburua, baina horretarako Alkatetzan egotea ezinbestekoa da. Eta hori da Zornotzako EH Bilduren helburua: Amorebieta-Etxanon gobernatzea.

**Legegintzaldia amaitzeko sei hilabete eskas baino ez dira geratzen. Zein da egiten duzun balorazioa?**

Egia esan nahiko gogorra izan da. Pandemia dela eta, bi urtez **gauza asko gelditu edo erdi geldirik** egon dira. Orduan, lehentasuna egunean-egunean agertzen ziren beharrezko erantzutea izan zen. Bide batez, Elkartasun Sareak egindako lana goraiatu nahiko nuke. Gainera, egoera horri, legegintzaldi osoan, **Gobernu Taldea gehiengo absolutu batean** egon dela gehitu behar zaio. Nahiko frustragarria izan da guztia. Gero eta argiago ikusten dugu herri honek norabide aldaketa bat behar duela. Gauzak beste modu batera egitea posible da. Inguruko herrietan ikusten ari gara hori. Zornotza ezkerretik eraiki nahi dugu. **Politika guztiontzat** egin behar da, bizi-baldintza duinak pertsona

guztiantzat bermatuz. Ezin dugu inor atzean utzi.

**Hiria Antolatzeko Plan Orokorra (HAPO) onartuko du laster Udal Gobernuak. Zeintzuk dira egitasmo horren gako nagusiak?**

Bada, momentu honetan faserik garrantzitsuenean dago prozesua: ekarpenak edo helegiteak aurkezteko unean, hain zuzen ere. HAPOa udalerrri batek izan dezakeen dokumentu garrantzitsuenetariko bat da. Bertan udalerrria etorkizunean nolakoa izango den egikaritzen delako: hirigintza, industria-guneak, zerbitzuak... Zorionez, joan den urriaren 28an egindako Osoko Bilkuran, **planaren onarpena abenduaren 31ra arte atzeratzea** lortu genuen, guk hala eskatuta. Izan ere, horrelako dokumentu bat eratzeko herritarren parte-hartzea ezinbestekoa da, eta, ildo horretan, nahiko negargarria izan da horretarako Udaletik planteatu diren prozesuak. Era berean, herritarrak ere ondo informatu behar dira. Plan horrek eragin handia izango du eta ondorio handiak ekarriko ditu. Eta horretan ere **Gobernu Taldeak oso gaizki jokatu du**: ez du bere eskura zegoen guztia egin herritarrak informatzeko.

**Zeintzuk dira, zure ustez, plan horren alde negatiboak?**

Etengabeko hazkundea aurreikusten da. Azken 10 urteotan 3.000 biztanleko hazkundea izan du Zornotzak. Hori gutxi ez balitz, datozen 10-15 urteetan, 1.450 etxebizitza berri eraikiko dituztela aurreikusten da; hau da, **23.000 biztanlera heltzeko arriskua** dago. Gainera, zerbitzuen kasuan, ez da hazkunde bera espero, inondik inora! Kontrajarriak diren ideia bi direla iruditzen zaigu: gero eta gehiago izango gara Zornotzan, baina zerbitzuen kopurua bere horretan utziko dute.

Horrez gain, komertzioa ere salduta geratuko da. Izan ere, **azalera handiko saltoki guneak** herrian kokatzeko arriskua ekarriko du plan berriak. Kirol azpiegiturei dagokionez, herrian dagoen gabeziari ez zaio globalean erantzungo, partxeak jartzen jarraituko dugu.

Bestalde, lurzoru industrial handia dago aurretik garatu gabe, baina, hala ere, **industriara zuzendutako lursail gehiago** aurreikusten dira planean... Gai mamitsuegia da galdera bakar batean erantzuteko, baina argi esan dezakedana da aurrean jarri zaigun herri eredia ez dela guk gura duguna. Hori ez da EH Bildu Zornotzak nahi duen herri eredia.

**EH Bildutik hainbat zuzenketa aurkeztu dituzue. Zeintzuk? Zer gertatu da zuen proposamenekin?**

Hainbat proposamen aurkeztu ditugu. Esaterako, Ixerbekoa





kiroldegia bota nahi dute etxebizitza pribatuak egiteko. Udal azpiegiturak bota, lurzorua interes pribatuen mesedetan uzteko... Astakeria da hori! Ixerbekoa, erabilera anitzeko espazio zoragarria izan daitekeela uste dugu, baina bota egingo dute.

Horrez gain, Vallet atzealdeko lurzoruetan, **kirol-gune berri bat eraikitzea** proposatu dugu, kirol taldeen eta herritarren beharri zehatzak erantzuteko gai izango dena, diziplina anitzekoa...

Bestalde, **etxebizitza sozialen gabezia** izugarria daukagu Zornotzan. Halaber, ez dugu uste lurzoru industrial berriak garatu behar direnik. Oraindik garatu gabe dagoena garatu beharko litzateke lehendabizi. Arestian esan bezala, merkatari txikiak bai ala bai babestu behar ditu Udalak. Alabaina, **2.500 m<sup>2</sup>-tik gorako azpiegiturak** eraikitzeko aukera egongo da, eta hori onartezina da; hori herriko merkatarien kalterako izango da. Oro har, gure proposamen txiki batzuk jaso dituzte, baina garrantzitsuenei entzungor egin zaie. Hala ere, denbora daukagu egoera aldatzeko, eta horretan saiatuko gara.

**Auzoz auzo ibili zarete planaren xehetasunak herritarrei azaltzeko. Zein erantzun jaso duzue herritarren partetik?**

Bai, jendea zeharo eskertuta agertu da egia esan. Santa Luzia, Vallet, Leginetxe, Larra, Euba, San Antonio, Ogenbarrena... Auzotar askorekin elkartzeko aukera izan dugu. Eta egia esan, **oso aberasgarria** izan da. Izan ere, udal ordezkariak gutxitan hurbiltzen gara haiengana, eta hurbiltzen garenean, bada, asko eskertzen dute. Auzo ugari ditu gure herriak eta auzo bakoitza mundu bat da, askok herri txikiak balira bezala funtzionatzen dute. HAPOak beraien inguruan eragingo duena azaltzen joan gara eta, bide batez, haiek esateko dutena entzutera.

Harrigarriena izan da, planari buruz gauza oso gutxiren berri zutela orokorrean. Areago, **kaltetuak izango direnak ere inolako informaziorik ez zutela konturatu gara. Bai eurak eta bai gu, zur eta lur geratu gara.** Ekarpinak eta alegazioak egitera animatu ditugu kaltetu guztiak, eta horretan laguntzeko prest agertu gara. Leku batzuetan sinadura bilketak egiten hasi dira jada.

**Zornotzarrekin harreman zuzena mantentzeko ahalegina egin duzue legegintzaldia hasi zenetik: ostalariekin, dendariekin, herritarrekin... bildu zarete.**

Ikasturte politikoa hasi eta gutxira pandemia etorri zen. Momentu horretan, premiazko beharri zehatzak erantzutea izan zen lehentasuna. Dendari eta ostalarientzat kontingentzia plan bat aurkeztu genuen, bi horiek izan baitziren sektorerik kaltetuenetarikoak. **Komertzioz-komertzio eta tabernaz-taberna**, gure proposamena zein zen azaltzen ibili ginen. Bide batez, haien beharri zehatzak zeintzuk ziren ere jaso genuen.

Normaltasuna berreskuratzen joan ginen heinean, herriko **kultur eta kirol elkarte ezberdinekin ere bilera-sortak** jarri genituen martxan, datorren urterako aurrekontu propioak egitea dugu helburu-eta. Gure herri-eredua ardazteko aurrekontua, hain zuzen ere. Horretarako, herritarrengana eta gizarte-eragileengana joatea ezinbestekoa da.

Gaur egungo politika pertsonengandik oso urrun dago. Distantzia hori murriztea nahitaezkoa da. Guk, herriarekin egin nahi dugu politika, eskutik helduta. **Herritarren eta gizarte-eragileen ahotsa** izan behar gara udaletxean, eta hala egin ezean, norabide okerrean joango gara.

*La versión íntegra en castellano de esta entrevista está disponible en las redes sociales de EH Bildu Zornotza y en nuestra página web: [www.ehbilduzornotza.eus](http://www.ehbilduzornotza.eus)*

# Ander Uriarte será el candidato de EH Bildu a la alcaldía de Amorebieta-Etxano en 2023

**Ander Uriarte Pujana** será el cabeza de lista de EH Bildu en Amorebieta-Etxano de cara a las Elecciones Municipales de 2023, después de que su candidatura haya sido ratificada por la base social de la coalición soberanista en un proceso interno que culminó con una votación el primer fin de semana de diciembre.

Uriarte afirma que el apoyo que recibió hace cuatro años por parte de la ciudadanía ha sido clave a la hora de aceptar la propuesta para volver a la liderar la candidatura de EH Bildu Zornotza en las próximas Elecciones Municipales. Además, asegura que EH Bildu cuenta con **“proyectos y medidas concretas para mejorar Amorebieta-Etxano”**, aunque también reconoce que para poder ponerlos en marcha es imprescindible lograr la Alcaldía. “Ese es el reto que nos marcamos en EH Bildu: gobernar en Amorebieta-Etxano para construir un pueblo mejor sin dejar a nadie atrás”, subraya.

Por otro lado, enumera los **principales peligros** que acarreará el Plan General de Ordenación Urbana (PGOU) que pretende aprobar el Gobierno Municipal de PNV y PSE-EE: “En los últimos diez años la población de Amorebieta ha crecido en 3.000 personas, y en los próximos 10-15 años podría llegar hasta los **23.000 habitantes**, ya que el plan prevé la construcción de 1.450 viviendas. Sin embargo, no se plantea el aumento de los servicios. Es decir, cada vez vivimos más personas en Amorebieta, pero con los **mismos servicios** de antes”.

También advierte de que el plan posibilitará la construcción de **grandes centros comerciales**, “lo que perjudicará al pequeño comercio”, y que está previsto el **derribo del polideportivo Ixerberkoa** para edificar viviendas. “Nos parece una barbaridad que se vaya a tirar a bajo una infraestructura pública como Ixerberkoa, que podría convertirse, por ejemplo, en un centro sociocultural, para que una empresa privada haga negocio con ese terreno”.

Asimismo, Uriarte ratifica que EH Bildu aboga por la construcción de **un gran complejo deportivo multidisciplinar** en los terrenos situados entre Vallet y el centro comercial Lidl para responder a las necesidades y demandas de clubes, asociaciones deportivas y de la ciudadanía en este ámbito.

Por último, recuerda que en el mes de octubre tanto él como sus compañeras y compañeros de EH Bildu **recorrieron los barrios y los comercios del pueblo** para explicar los detalles del PGOU y que en esas asambleas constataron que la mayoría de la ciudadanía, incluidas las personas perjudicadas directamente por este plan, no disponía de información sobre los proyectos que se pretenden llevar a cabo ni cuáles son los plazos para presentar posibles alegaciones, “lo que demuestra que **el Gobierno Municipal no ha hecho lo suficiente para informar a la ciudadanía** sobre el PGOU”.

